

NORANTZA

ANDONI LIZEAGA

SAREAN ELKARTEKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

«Indarrean dagoen hezkuntza sistema hobetzen saiatzen gara»

Indarrean dagoen hezkuntza eredia aldatze edo hobetze lanetan diharduten elkarteak ugari dira Euskal Herrian. Sarean Elkarteak, elkarlana oinarri harturik, dagoena hobetzeko joatea du helburu.

AMAIA MUNDINANO

Euskal Eskola Publikoak Sarean elkarteak duela bi urte sortu zen erakunde gisa, aurreragotik sare publikoko hainbat ordezkari biltzen baziren ere. Andoni Lizetaga elkartearen komunikazio arduraduna da eta berarekin izan gara solasean.

Zein da Sarean elkartearen helburu nagusia?

Gure helburu orokorra indarrean dagoen hezkuntza sistema hobetzea da eta horretan saiatzen gara. Berau lortzeko bi ildo nagusi lantzen ditu elkarteak: bata ikasketen arteko komunikazio, koordinazio eta elkarlanean oinarritzen da. Bigarrena, berriz, administrazioarekin mantendu beharreko harremana eta, ahal den neurrian, aurrera eramane beharreko elkarlana da.

Elkartearen lan eremua zerk mugatzen du?

Sarean-en lan eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoko Haier eta Lehen Hezkuntzetako ikasketek dira. Egun, 89 ikasketetako ordezkariak osatzen dute elkarteak. Baina, dudarik gabe, ez dugu Euskal Herriaren parte bat garelako ahazten eta, ondo-

rioz, burutzen dugun lana ez dugu Autonomia Erkidegoko ikuspegi bakarririk egiten, gure helbururikoa bat Euskal Herriko beste herrialdeetan dauden elkarte eta taldeekin elkarlanean aritzea baita.

Nolako harremanak dituzue administrazioarekin?

Duela bi urte ikasketetako ordezkariak entzuten izan behar genuen, beraz, lehenik eta behin, kalitatea zer den, zein parametrotan ko-

darrikatu genuen. Memento honetan entzunak garen sentsazioa badugu, baina, gauza guztiak bezala, administrazioarekiko harreman honek hobetu daitezkeela pentsatzen dugu. Dena den, azken bi urteotan harremanak aldatu eta hobetu direla ez dago zalantzarik. Azken finean, gure helburua ez baita euren kontra jotzea, guztien artean dagoena hobetzeko joateko baita, horretarako, elkarlanean aritzea eskaintzen diogu administrazioari.

Zein da ikasketen publikoek eskaintzen duten kalitatea?

Kalitateak osko hitz egiten da eta berau neurtzeko garaietan parametro ezberdinak daudela argi ikusten dugu. Beraz, lehenik eta behin, kalitatea zer den, zein parametrotan ko-

matzen dugun eta zertaz ari garen zehaztu beharko dugu. Zentzu horretan, sare publikoan pribatuaren bezainbesteko kalitatea dagoela azpimarratu dezakegu. Gainera, eguneko egun hobetzen ari garen kalitatea dela esan beharra dago. Bestalde, kalitate mailaren gaitzaren, beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharrezkoak direla iruditzen zaie: eskolaz kanpoko jarduerak, jangela, garraiok, orientazio taldea, ikasle kopuruak getetan, irakasleen lan baldintzak eta formakuntza, besteak beste.

Ikasketen eredu ezberdinak biltzen dituen hainbat elkarte dago Euskal Herrian (Ikastolen Elkarteak, Sortzen-Ikashatuz...), Lehia handirik sortzen al da guztien artean?

Lehia nagusia merkatuak sortarazten duena da. Gai honetan bi faktore hartu behar dira kontuan: batetik, ikasle kopurua gero eta baxuago dela eta, bestetik, gizarteak ikasketeci orokorrean gero eta gehiago eskatzen diela. Eskakizun maila horri erantzun zehatzak eta daudenak baino hobekoak eman behar zaizkio eta horrek nolabaiteko lehiakortasuna sortzen du ikasketen edota haiek biltzen dituzten elkarte ezberdinen artean. Lehiakortasuna zentzurik positiboenen hartu behar da, azken finean, gizartearentzat ona baita lehia hori. Bestalde, urtean zehar gauza asko daude egiteko eta aipatu elkarrekin elkarlanean aritzen gara, alor batzuetan elkarlan hori nabarmenagoa delarik. Gainera, aurrerantzean oinarritzen hartu behar den elementua dela usate dugu. Bestalde, gure eguneroko lanari ahalik eta hobekien erantzutea da gure asmo nagusia.



Conny Beyersviller

ZIRTOKA



Txillardegí

Europa

«Euskararen erabilpena»ri buruzko legea 1982ko azaroaren 24an onartu zen.

Honela zioen 8.3 puntuak: «Herriaren eskubideen kaltetan gerta ez denean, herri-antitarrak... euskara bakarririk erabili ahal izango dute».

Berehala, (1986ko 82. Epaia), Espainiako gobernuak inportatu egin zuen hori. Lekuan lekuko mailan ere euskara hutsaz ibiltzea debekaturik utzi zuen.

Geroztik UEMA-ren legetasuna zailantzen zegoen. Orain badakigu: UEMA legetik al dago.

Lurraldetasuna ukatua dago ofizialki.

Ondarroara bilduko gara etzidamu, euskaltzale antiz agian. Baina UEMA ilegala da. Udalerri euskaldunen elkarteak... txarra!

Hots, Belgikan eta Suitzan, jakina denez, hiri famatuak dira elebarrak (Genève eta Zürich, adibidez); baita eskualde osoak ere (Aafand uhartere-tako 16 udalerri) suziera hutsaz bizi dira. Lurraldetasunak, beraz.

Eta Suitza, Belgika, Finlandia, Europa dira.

Madriren eta Parisen gorroto duten Europa, ordea. Herrien errespetuan erakitakoa.

AITZINDARIAK

JOSE MIGEL BEÑARAN
1 9 4 9 1 9 7 8



ARREKOKO + KOKEMARI